

B. ESKOLA-INGURUNEA



Helburu espezifikoak:

- Eskola-ekosistema osasuntsua sortzea, elikadurari eta jarduera fisikoari dagokienez ohitura osasungarriak landu ditzan.
- Ikastetxeetan ematen diren elikagaiek elikadura orekatu eta osasungarriari buruzko gomendioak betetzen dituztela ziurtatzea.
- Ikastetxe guztietan txertatzea sedentarismoa saihesteko jarduerak eta jarraibideak, bereziki jolas-orduetan.

Proiektu estrategikoak:

B.1. Ikastetxe guztietan portaera osasungarriak sustatzera eta lantzerak bideratutako zeharkako proiektu bat lantzea; ikuspegi komunitarioa izango du; udalak, enpresak, guraso-elkarteak, herritarrak, eta abar inplikatu ditu; eta hezkuntza-etapa ezberdinetan errepikatuzko moduko jarduerak jasoko ditu. Besteak beste, honako elementu hauek barne hartuko ditu:

Elikadura osasungarria eta jarduera fisikoa sustatuko dituzten jarduerak antolatuzko jarraibideak eta erremintak. Jarduerak hezkuntza-mailaren arabera antolatuko dira, errazak izango dira, eta metodologia argia baliatuko dute (eskolako lora-tegiak eta baratzeak, errezeta osasungarrien lehiaketak, fruta banatzeko kanpainak, familiekin koordinatuta hamarretako osasuntsuak, gosari orekatuen tailerrak, sukaldaritzaren eta gastronomiaren hastapenak, elikagaiak erosi eta prestatzea, ikastetxeetako jolastokiak eraldatzea, jarduera ez-lehiakorren eskaintza zabaltzea, eta abar).

Garrantziko mezuak hedatzeko material espezifikoak (gidak, posterrak, mantel-babesak, helburuak betetzeko kartillak, irakasleentzako eta ikasleentzako argumentarioa, etab.)

Ikastetxeei errekonozimendua ematea (esate baterako: "osasunaz arduratutako ikastetxea" aipamena).

Eskolaren esparruan jarduerak koordinatzea Hezkuntza-Osasun Batzorde baten bitartez.

B.2. Hezitzaileentzako (irakasleak, begiraleak, kiroletako, pedagogiako eta kaleko hezkuntzako koordinatzaileak, etab.) sentsibilizazio eta formakuntza ekintzak, aldaketa eragingo duten ekintza positiboak integratuta (esperimentazioa, motibazioa).

B.3. Eskola-garai osoan jarduera fisiko gehiago egitea sustatzea: ikastetxeetako jolastokiak jolaserako eta jarduera fisikoa egiteko gune bihurtzea, jolas-orduetan oinarri fisikoa duten jokoak sustatzea, ahalik eta ikasle gehienen premietara, interesetara eta gaitasunetara egokituko diren jarduerak ez-lehiakorren eskaintza zabaltzea, eskola-bideak sustatzea ikasleak eskolara oinez edo bizikletan joan daitezen, neskek jarduera fisikoa egitea sustatzeko ekimen espezifikoak, etab.

Zerikusia duten beste proiektu batzuk:

EUSKADIKO ELIKADURA OSASUNGARRIRAKO EKIMENAK

3 PROIEKTUA. Ikastetxeetako jangelen 360°-ko eguneratzea: eskaintzaren berrikuntza, kontsumo-inguruneen hobekuntza eta kontratazioetako baldintza teknikoen agirietan sukalde zentralak sartzea.

4. PROIEKTUA. **Vending inteligente eta osasungarria**, besteak beste, ura, esnea, frutak eta barazkiak, gantz gutxiko sandwichak eta mokaduak eskaintzea, eta freskagarriak eta gozotegiko produktuak kentzea (2018ko azken hiruhilekoan pilotajea egitea).

8 PROIEKTUA. **Hezkuntza-ekosistema osasungarria**, haurrengan eta gazteen-gan elikadura-ohitura osasungarriagoak eragingo dituzten neurri positiboak sustatzeko.

MUGIMENT PROIEKTUA

Jarduera fisikoaren orientazio zerbitzuak. Herrietako eskolek pertsona ez-aktiboak identifikatzen dituzte eta orientazio-zerbitzura bideratzen dituzte. Zerbitzu horretan inguruan erabilgarri dauden baliabideak ezagutzen dituzten pertsonek jarduerarik egokienak proposatzen dizkiote pertsona bakoitzari, bere premien, mugen eta interesen arabera, eta, gainera, praktikan jartzen laguntzen diote.